



# Ezinik ez

Unai Zabalo txirrindularia



## *Maria Teresa Garcia Moya*

2024ko martxoaren 26an hil zen, 95 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Eskerrik asko gure bizitzak zure bizipozarekin betetzeagatik.***

Etxeakoak



## *Joxe Bollar Txurruka*

2024ko martxoaren 30ean hil zen, 71 urte zituela.

***Aio, Joxe, ohore bat izan dek hire senide izatia.  
Hire irribarria eta umoria beti eruango jaittuagu gure barruan.  
Agur, eta berriro ikusi arte.***

Senideak



## *Joxe Bollar Txurruka*

2024ko martxoaren 30ean hil zen, 71 urte zituela.

***Gizon jator, lagun ona eta senide maitakorra joan zaigu,  
Sallobente elkarteko sortzaileetako bat.  
Ekintzaile eta gure memoriaren babesle.  
Beti gure bihotzetan izango zaitugu. Goian Bego!***



## *Jose Antonio Ardanza Garro*

2024ko apirilaren 8an hil zen, 82 urte zituela.

***Berez ez da sekula garatzen mundua,  
eskertzekoa da zuk hortan lagundua.  
Jarri dituzulako bihotza, burua...  
ezagutuz hobetzen gure ingurua.***

***Abertzale eta jeltzaleontzat betirako eredu.  
Agur eta ohore, Ardanza Lehendakaria.***



Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.  
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez, Lere Kerxeta, Nagore Cancio **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



[facebook.com/barrenaldizkaria](https://facebook.com/barrenaldizkaria)



[twitter.com/barreneus](https://twitter.com/barreneus)



[instagram.com/barrenaldizkaria](https://instagram.com/barrenaldizkaria)

Alex Segade

Kazetaria

## Gazte langabeziaren harira



*"Enplegua sortzeko  
hemen daukagun  
ezintasuna  
ikaragarria da"*

Beti kostatzen zait gai bat ateratzea idazteko. Askotan gustatuko litzaidake gai bat edo bi izatea aukeratzeko eta hortik testutxoia idaztea, institutuko idazlanetan bezala. Europako Batasuneko estatuetakoz gazteen langabeziaren azkeneko datuak ikusi nituen orain dela gutxi. Nola ez, Espainia da gazte langabezia altuena duen estatua Europako Batasunean. Ez dut gogoratzen zein portzentai zen, baina %25 edo izango zelakoan nago. Baina bueno, berdin du, ehuneko dexente handia zen, egia esan. Ez dakit zein urtera artekoak hartzen dituzten gaztetzat zerrenda horretan, baina imajinatzen dut 29 bat urtera artekoak izango direla.

Datuak harritu ninduen. Herrialde pobre bateko datua dirudi, eta Espainia ez da, orokorrean, herrialde pobre bat. Esan nahi dut Europako Batasunean ekonomikoki egoera txarragoan dauden herrialdeak badirela. Hori da, behintzat, nire ustea. Hala ere, enplegua sortzeko hemen daukagun ezintasuna ikaragarria da. Egoera ekonomikoarekin lotuta ez dagoen ezintasuna sumatzen dut. Benetan diot askotan jartzen naizela pentsatzen zergatik dagoen hainbesteko ezina gazteentzako lanpostuak sortzeko. Ez dut ekonomia ikasi eta gai honetaz ez dakit, baina arrazoiren bat edo gehiago egon behar dira honetarako.

Gazteak enplegatzea denbora luzean herrialde bat ekonomikoki eta sozialki sustentatzeko gauzarik garrantzitsuenak dela esango nuke. Haien ekonomia sendoa bada, gehiago gastatu ahalko dute. Esan nahi dut: gurasoen etxea laga, kotxea erosi... inbertsioak egin, azken finean. Eta seme-alabak izateko erraztasun gehiago, noski. Azken urteotan jaiotzak jaitsi izana ez da bakarrik preferentzia edo gustu kontu bat. Argi daukat, batez ere, arrazoi ekonomikoak direla. Konponbidea ez da erraza. Serio hartu beharreko auzia da. Gazteok bizirauten ari gara eta herrialde batek ezin du hori onartu.

### Harro Herri

23. Korrikak gure herria zeharkatu zuenetik egun batzuk pasatu badira ere, oraindik ez zaizkigu ahaztu martxoaren 20an, eguerdiko 12:00ak inguruan hasita bizi izan genituen emozioak. Hura giroa Santa Ana kale inguruan, Mauxitxa txarangak lagunduta! Ordurako beste asko Sigma aldean ziren, Eibarkoek zekarten lekukoaren zain. Herriari buelta eman eta mendaroarrak zain ziren Lanbi enpresaraino eraman zuten hainbat erakunde, lantegi, eskola...-ren ordezkariak, Ainhoa Lendinezen animo hitzek lagunduta.

Kanpotik edo hotzean ikusita, sortzen digun zirrarak ez du parekorik, baina ezin dugu ahaztu, honek guztiak aurretiko isileko lan eta parte-hartze handia duela. Hori dela-eta, era batean edo bestean, lagun izan zaituztegun denoi eskerrak eman nahi dizkizuegu: AEK euskaltegiko ikasle batzuei; Udal Euskara Sailari; Elgoibarko Izarrari; Ongarri zine klubari, udaltzainei; diru ekarpena egin duzuen guztioi (zoritxarrez, oraindik ere, AEK-n horren premia dugulako); Mauxitxa txarangari; Azkue argazki dendari, BARRENI, Daniri, Ainhoa Lendinezi... ezin ahaztu Ikastolak eta Herri Eskolak antolatutako Korrika Txikia, herriko txikiei ere bidea erakutsi zietelako, bihar-etzi eurak izan daitezen lekuko eramaile ez ezik euskara erabiltzaile ere. Eta esker berezia Mendaron 23. Korrika antolatzen jardun duten lagunei, baita parte hartu zuten guztiei ere.

Harro sentitzen gara, baina ez konforme, izan ere, AEK euskaltegikook, sarri, amesten dugu, egun, Korrikak dituen bi helburu nagusiak: herritarrak kontzientziatzea eta AEK euskaltegiek, Euskal Herri osoan, lanean jarrai dezaten, dirua jasotzea, beharrezkoa ez izatearekin, baina, zoritxarrez, bietan ahaleginak eta bi egiten segi beharra daukagu.

23. Korrikan eskuz esku erabili dugun lekuko barruan zegoen mezuan honela zioen Garazi Arrulak: "Gutariko bakoitzak anitz hizkuntza ukan ditzake, euskarak gu baizik ez gaitu". "GU" hori izaten, hau da, euskaldun izaten, bidelagun lanak egiten ditugu AEK euskaltegian, bakoitzak dituen beharren arabera: dela seme-alabei laguntzeko eta eurekin gozatzeko, dela lagunei ulertzeko, dela integratuta sentitzeko, dela tituluren bat lortzeko... beraz, aitzakiarik gabe, herritarrek konpromiso

horri heltzeko ordua da, bihar edo etzi „gureak egin du" esan beharrik izan ez dezagun.

**AEK Euskaltegia**

### Botoa, nori?

Hori galdera! Eta erantzuna? Sasi demokrazia honetan antzerkian parte hartzeko aukera izan dugunez geroztik, beti egon da botorik eman ez duena, betikoari eman diona, edota aldaketari zirrikitua zabaltzeko aukera ikusi duena, besteak beste. Nik botoa ez ematearen aldeko hautua ez dut, gaur egun, oso eraginkorra ikusten, nahiz eta neuk ere horren aldeko hautua inoiz baino gehiagotan egin. Batasunak indarra dakar, eta hauteskundeetan... botoak agintzen du, bai ala bai. Gustura entzungo nuke horrelakoen iritzia. Bestelako aukeren artean, zalantzak askoz txikiagoak ditut. Nik esango nuke ez dudala inolako ezbairik. Izan ere, betikoak, zer dakar, bada, betikotasuna, ez bada! Sasoia da betiko asperraldiari bizkarra emateko eta bestelako bizipoza izateko, herri honek merezi du-eta. Gainera, orain dugu aukera handia zorientasun ibilbidean beste pauso bat emateko, eta ezin dugu kalerik egin.

**Juan Luis Mugertza**

### Eskerrik asko

Mendaroko Txirriindulari Elkartetik eta Lizarpe Mendi Klubetik eskerrak eman nahi dizkizuegu apirilaren 6ko egun handia antolatzen lagundu zenuten guztioi. 12. Kilimon Trail lasterketa izan dugu aurtengoa eta oso pozik gaude egindako lanarekin eta lortutako emaitzarekin. Lan handia da maila honetako proba bat antolatzea, baina babesle, laguntzaile eta boluntariook erantzuten duzuela ikusteak poza ematen du, bai eta indarra ere datorren urtekoari ilusio handiagoz heltzeko. Hustuta amaitu dugu aurten ere, baina aldi berean, beteta. Mila esker, beraz, zuri, kirolari, mendiko lasterketen egutegian gurea aukeratzeagatik; eskerrik asko esatari, argazkilari eta hedabideotako lagunoi ere, gure proba honi zabalkundea emateagatik; eta gure eskerrik beroena Mendaroko herriari: Udalari eta boluntario lanetan jardun zineten guztioi. Gustu baduzue, datorren urtera arte.

**Mendaroko Txirriindulari Elkartea eta Lizarpe Mendi Kluba**



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)



943 744 112



688 655 658



**Pedro Mugurutzako eskoletako aparkalekuan abandonatutako autoak daude:**

"Pedro Mugurutzan aparkatzeko lekua falta dugu, eta gainera, abandonatutako pare bat auto daude bertan. Ibilgailu bat urtebete inguruan dago leku berean mugitu gabe. Prezintatuta egon zen, eta gurpilak zulatuta ditu. Beste ibilgailu bat ere bi hilabetez dago mugitu gabe, leku berean. Bizilagunok uste dugu ibilgailu horiek ez liratekeela hor egon behar".



**Kirol Patronatuak zergatik ez du ematen aukera Kirol Campusean txandaka izena emateko?.**

"Elgoibarren gero eta aukera gehiago dago udako aisialdirako. Lehen Atxutxiamaiak bakarrik geneukan, gerora hasi zen Kirol Campusa, eta orain, Birakak dantza ere eskaintzen du. Ingelesekoak ere badaude, eta Elgoibartik kanpora ere aukera zabala dago. Umeentzako interesgarria litzateke aukera bat baino gehiago probatzea, baina horretarako txandak ezinbestekoak dira. Kirol Campusean lau astez eman behar da izena, eta horrek ez du aukerarik ematen beste ezer probatzeko. Zergatik egiten dute hori horrela? Umeei begira ez al duzue uste aukera desberdinak ematea aberasgarriagoa izango litzatekeela?". Ramon Mujika Kirol Patronatuko zuzendariak erantzun hau eman dio BARRENI: "Kirol Campusaren ikuspegi pedagogiko eta metodologikoak lau asteko programa jarraitu baten onura jasotzen du. Egitura horri esker,

aurreikusitako ikaskuntza eta garapen helburuak bete ditzakegu, talde-kohesio handiagoa sustatuz eta haurrentzat esperientzia aberatsagoa eta sakonagoa eskainiz. Programa laburrago batek ez luke garapen-maila integral hori ahalbidetuko. Beste aukera batzuekin alderatuta, Kirol Campusa ekonomikoki eskuragarriagoa ere bada, haur guztiek parte hartzeko aukera izateko. Udalekua bi txandatan banatzeak nabarmen igoko luke kostua partaide bakoitzeko, eta horrek atzera bota ditzake familia batzu. Beraz, gure Udako Kirol Campusaren lau asteko egiturari eustea erabaki dugu, arreta handiz orekatuz programaren helburu pedagogikoak, kalitatea, gure hezitzaileentzako lan-baldintza duinak eta familientzako irisgarritasun ekonomikoa. Ikuspegi horri esker, udaleku aberasgarria eta ekonomikoki eskuragarria eskaini dezakegu, hezkuntza-bikaintasunarekin eta ekitatearekin ditugun konpromisoerik eutsiz".



**Txalo bat Elgoibarko herriari, Korrikari erakutsitako babesagatik:**

"Ez du hutsik egin Elgoibarrek. Kaleak jendez gainezka zeuden Korrika iritsi zen unean. Ume, heldu zein nagusi, denak euskararen alde. Hunkigarria izan zen".



**Txalo bat Kilimon Trail mendi lasterketaren antolatzaile eta laguntzaileei:**

Mendi lasterkariak ez garen arren, eskerrik asko Kilimon Trailaren antolatzaileei eta laguntzaileei, lasterkaren aitzakian mendi ibilbide bat txukundu diguzuelako urte guttirako, guk ere goza dezagun.

## 575 kilo garbantzuz batu dituzte Elgoibarren, Zaporeak egitasmoaren barruan

Lesboseko errefuxiatuen kanpalekura bidaltzeko janari bilketa egin du Zaporeak elkarteak Debabarrenean. Elgoibarri garbantzuz pedrosillanoa batzea egokitu zitzaion, eta guztira 575 kilo batu dituzte. Laguntza eman duten herritarren artean afariak eta artelanak zozkatu dituzte antolatzaileek. Hona sariak eta zenbaki irabazleak:

■ Bi lagunentzako afaria Tantaka tabernan: Zenbaki saritua: 772. Erreserbako zenbakia: 954



■ Bi lagunentzako afaria Salento Pizzerian: Zenbaki saritua: 649. Erreserbako zenbakia: 974

■ Gemma Monreal margolariaren artelan bat: Zenbaki saritua: 870. Erreserbako zenbakia: 912

Debabarrenean, 12 tona janari bildu dituzte, eta errifekin zein donazioekin 13.000 euro. Zaporeak Elkartetik gogoratu dute bazkide egiteko aukera dagoela [zaporeak.eus](http://zaporeak.eus) webgunean.

## Donostiatik Oriorako ibilaldia antolatu du Elgoibarko Jubilatuen Biltokiak

Elgoibarko Jubilatuen Biltokiak Donostiatik Oriorako ibilaldia antolatu du apirilaren 16rako. 09:15ean abiatuko dira trenez Donostiara. Norberak eraman beharko ditu hamarretakoa

eta bazkaria, eta Orion bazkalduko dute denek batera. Itzulera trenez egingo dute. 12 kilometroko ibilbide erraza dela aurreratu dute antolatzaileek.

## Hemen bertoko 500 zuhaitz landatu dituzte Idotorben



Zuhaitzaren Astearen barruan, hemen bertoko zuhaitzak landatzeko ekimena antolatu zuen Elgoibarko Udalak, Herri Eskolarekin eta Elgoibar Ikastolarekin elkarlanean. 150 ikaslek hartu zuten parte landaketetan: Herri Eskolako 76 eskola-umek eta Elgoibar Ikastolako 74k.

Guztien artean 80 zuhaitz-landare landatu zituzten, bertoko espezieetakoak guztiak: pagoak, haritzak, urkiak eta zumarrak. Udaleko langileek beste 420 landare sartu zituen lursail berean. Idotorberako bidean landatu zituzten zuhaitzok, lurjabeak horretarako laga duen sailean.

## Arma zuriz egindako eraso baten ustezko egilea atxilotu dute

30 urteko gizonzkoa atxilotu zuten zapatu goizaldean Elgoibarren, borroka batean beste gizon bati arma zuri batekin eraso egitea leporatuta. Ertzaintzak jakitera eman duenez, Elgoibarko udaltzainen laguntzarekin atxilotu zuten erasoaren ustezko egilea, lesio-delitu bat egotzita. Ertzaintzak joan den zapatuan, 06:00ak aldera, jaso zuen abisua: Herriko aisialdi gune batean borroka bat gertatzen ari zela eta arma zuriz zauritutako lagun bat zegoela, hain zuzen ere. Abisua jaso ostean, Udaltzaingoaren patruilak eta osasungileak ere joan ziren lekura eta biktima artatu

zuten. Bularraldean zuen zauria, toraxean, eta Mendaroko Ospitalera eraman zuten zauria sendatzera.

Handik gutxira atzeman zuten erasoaren ustezko egilea, bere bizilekuan. Beharrezko egiaztapenak egin ondoren, eta Udaltzaingoak inguruan aurkitutako arma zuria "susmagarriarena zela egiaztatu ondoren", ertzainek gizona atxilotu eta ertzain-etxera eraman zuten, beharrezko eginbideak egiteko. Atxilotua, 30 urteko gizonzkoa, epailearen esku utzi zuen polizia, eta ikerketa abiarazi dute, "usteazko lesio-delitu batengatik".

### 300 familia behar dira udan haur sahararrak hartzeko



*Uda bateko besarkada* lelopean udan haur sahararrak euskal familietan hartzeko *Oporrak Bakean* programa martxan jarri dute, eta 300 familia lortzeko erronka daukate. Errefuxiatutako sahararren bizi-baldintzak nazioarteko laguntza humanitarioaren eta gero eta larriagoak diren muturreko klima-baldintzen menpe daude. Munduko Medikuek erakundearen arabera, ohiko osasun-arazoez gain, hiru haur sahararretik batek bakarrik jasotzen du hazkuntza egoki bat izateko behar duen dieta. Horrek *Oporrak Bakean* programa arnasmune bilakatzen du, bai parte hartzen duten adingabeentzat, bai haien familientzat, zeintzuekin oso harreman estuak sortzen diren.

Elkartetik jakinarazi dute oraindik familia asko falta zaizkiela 300 haur horiei udarako bizilekua emateko, eta euskal herritarrek animatu nahi dituzte programan parte hartzera.

Interesa duten familiek *Oporrak Bakean* webgunearen bidez, [oporrabakean@gmail.com](mailto:oporrabakean@gmail.com) emailera idatziz edo telefonoz deituz eman dezakete izena: 665 711 947 (Araba), 658 751 359 (Bizkaia) eta 696 014 786 (Gipuzkoa).

### Mankomunitateko langile bati egindako eraso salatu du LABek

LAB sindikatuak salatu duenez, herritar batek fisikoki erasotu zuen lanean ziharduen Mankomunitateko behargin bat, martxoko azken astean: "Berriki gertatutako eraso urrats bat gehiago da langileek pairatzen duten babesgabetasun egoera", adierazi du sindikatuak ohar bidez, eta langileen aurkako mehatxuak urteetan zehar ohikoak izan direla gaineratu dute. Egoera horren aurrean, "beste alde batera" begiratu eta "erabakirik hartu ez" izana egotzi die Debabarrenako Mankomunitateari eta Badesa enpresa publikoari. Ion Zubiaurre Mankomunitateko lehendakariari, bestalde eskatu diote "langileak defendatzeko behar diren neurriak" hartzeko. Zehazkiago, sindikatuak eskatu du "protokolo bat" sortzeko, "egoera horiek berriro gerta ez daitezen eta langileen laneko osasuna bermatzeko".

## 4.000 bonu atera dituzte 'Bizi Bizixa' kanpainan, eta hilaren 30era arte trukatu daitezke dendetan

Herriko merkataritza sustatzeko egitasmoaren barruan, *Bizi Bizixa* kanpainaren beste edizio bat jarri du martxan Elgoibarko Udalak. 30.000 euroko inbertsioa egin du Udalak, eta 4.000 bonu atera ditu. Bonuak saltokietan erosi behar dira erosketa egiten den unean, eta apirilaren 30era arteko epea egongo da bonuak trukatzeko. 46 establezimenduk hartu dute parte kanpaina honetan, eta bakoitzak 86 bonu jaso ditu. Bonu horiei esker, herritarrek deskontuak eskuratuko dituzte. 5 euro eta 60 euro bitarteko gastua egin beharko dute, eta %25eko deskontua jasoko dute.

Bidenabar, kanpaina honetaz baliatuta, erosketak euskaraz egiteko deia egin diete Udalak eta Elgoibarko Izarrak bezeroei. Horretarako, herriko establezimenduetan euskarazko zerbitzua indartzeko, *Euskaraz barra-barra* izeneko marka berriaren ikurra jarrita dute zerbitzuak euskaraz



eskaintzeko gaitasuna duten establezimenduek. Euskal Herri osoko marka bateratua da *Barra-barra*.

Ikur horrekin bezero euskaldunei adierazten zaie euskaraz lasai aritzeko aukera dutela ikurra jarrita duten establezimenduetan, izan ere, marka agerian jartzen duten establezimenduetan euskaraz ulertzen duten langileak egongo direla bermatuko baita.

### Gurutze Gorriak lokal berria dauka Gabriel Krutzelaegi kalean



Elgoibarko Udalak Gurutze Gorriari laga dio lehen Udal Ludoteka zegoen lokala, Gabriel Kurutzelaegi kaleko 6. zenbakian. Lokala lagatzeko erabakia Gurutze Gorriaren konpromiso sozialean oinarritzen dela zehaztu dute Udaletik, hau da, arreta hurbila, zeharkakoa eta pertsonalizatua eskaintzea gehien behar dutenei. Udalak urtebeterako laga dio lokala Gurutze Gorriari, baina adostu dutenaren arabera, lagapena beste hiru urtez luzatu ahal izango dute, "automatikoki".

### Nerabeen buru-osasunari buruzko hitzaldia, apirilaren 16an

Familiei gazteen hezkuntzan eta ongizate emozionalean laguntzeko konpromisoarekin, Elgoibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan, Treba Gurasoak egitasmoa dauka martxan, eta apirilaren 16an izango da aurtengo zikloko azken hitzaldia. *Osasun Mentala eta Nerabeak* izango da azken saio horren izenburua. 17:30ean hasiko da

hitzaldia, Elgoibarko Gaztelekuan. Estibaliz Ansotegik emango du, eta besteak beste, nerabezaroan familia-inguruneak eskaini dezakeen babes-faktorea aztertuko du. Horrez gain, ondoez, antsietate eta jazarpen egoerak detektatzeko eta maneiatzeko baliabideak eta teknikak partekatuko ditu guraso eta tutoreekin.



## Etxeko eta zaintzako langileen eguna ospatu dute Lilan

**M**artxoaren 30a etxeko eta zaintzako langileen nazioarteko eguna da, eta alor horretan diharduten herriko hainbat lagunek Lilan ospatu zuten apirilaren 6an, emakumeen etxean. Gastronomía eta kultur aniztasuna izan ziren ospakizuneko osagai nagusiak. Euren herrialdetako ikurrez eta jakiz osatutako mahaiak ipini zituzten Kolonbiako, Nikaraguako, Dominikar Errepublikako eta Kongoko jatorria duten elgoibartarrek. Festaz



aparte, etxeko eta zaintzako langileek gizarteari egiten dioten ekarpena ikusgarri egin eta "merezitu duen balorea" ematea eskatu dute. "Egiten dugun lana aintzat hartzea nahi dugu, gure lana ikustaraztea".

### Elkarrekin-Podemos alderdiko David Soto eta Miren Echeveste izan dira Elgoibarren



*Aukeratu ezker*a lemapean iritsi da Elkarrekin Podemos alderdia Elgoibarrera. David Soto Elkarrekin Podemoseko Gipuzkoako zerrendaburuak eta Miren Echeveste Eusko Legebiltzarrerako hautagaiak adierazpenak egin zituzten eguaztenean Maalako parkean, Evaristo Rodríguez Elgoibarko Podemos alderdiko ordezkariaren babesean. Garapen digitalari buruz aritu ziren besteak beste, eta esan zuten Eusko Jaurlaritzak bermatu beharko lituzkeela lanerako baldintza egokiak Euskal Herrian, herritarrak atzerrira joan beharrik izan ez dezaten. Apirilaren 21eko hauteskundeetan ezkerre aukeratzea dela bidea esan zuten.

### 'Gehiegi maitatzen duten emakumeak' ikastaroa antolatu dute maiatzerako

*Gehiegi maitatzen duten emakumeak* ikastaroa antolatu du Elgoibarko Udalak maiatzerako. Eider Perez psikologo eta coach elgoibartarrak emango du, eta emakume batzuk beren bikotekideak era obsesiboan maitatzera iristen diren harreman disfunczionalen gaia izango du oinarrian. Saioetan egoera horren hainbat kasu, kausa eta ondorio aztertuko dituzte, eta harreman osasungarriak sustatzeko jarraibideak emango dira. Maiatzaren 2tik 30era izango da, ostegunero, 18:00etatik 20:00etara, Lilan. Emakumeei zuzendutako ikastaroa da. Euskaraz izango da, eta doan.

Izena emateko epea ikastaroa hasi baino astebete lehenago itxiko da. Interesatuak online eman behar dute izena: [labur.eus/lila2024](http://labur.eus/lila2024) webgunean. Antolatzaileek jakinarazi dute haurrak zaintzeko zerbitzua egongo dela saioek irauten duten bitartean.

### Odol ateratzeak egingo dituzte gaur, Elgoibarko jubilatuen biltokian

Odol Emakumeen Elkartetik jakinarazi dute gaur odol ateratzeak egingo dituztela Elgoibarren, jubilatuen biltokian, 16:30etik aurrera. Ordua eskatzeko 623 328 408 telefono zenbakira deitu edo whatsapp idatzi behar da.

# UNAI ZABALO MURILLO

Txirrindularia

Legazpiarra da sortzez Unai Zabalo Murillo, baina dio bere herrian baino jende gehiagok ezagutzen duela Elgoibarren, Garitaonaindia farmazian diharduelako lanean duela zortzi bat urtetik. Txirrindularia da, eta txirrindularitza egokituko probetan ari da lehiatzen, dismetria bat daukalako jaiotzetik ezkerreko hankan. Iaz, Espainiako Txirrindularitza Federazioak talentu berriak erakartzeko topaketan parte hartu zuen eta txirrindularitzarako dohaiak badituela ikusita, jarraipen bat egiten ari zaizkio orain. Europako Paracycling Txapelketan bigarren egin zuen martxo hasieran Extremaduran (Espainia) eta domekan Espainiako Kopako lehenengo lasterketa jokatu zuen Ponferradan (Leon, Espainia). Bigarren sailkatu zen. Espainiako Kopako beste bi lasterketa eta Espainiako Txapelketa ditu orain begiz jota, eta eskertuko luke babesleren bat aurrera egiten jarraitzeko.

✍️ Ainara Argoitia 🚴 Asier Orbea / Unai Zabalo

## Noiztik zabilta txirrindularitzan?

Berandu hasitakoa naiz ni, umetan gehiago izan ginelako futboleko ibiltzekoak. Duela zazpi bat urte hasi ginen kuadrillako zenbait bizikletan, mendiko bizikletak erositak. Kuadrillan badugu lagun bat txirrindularitzan lehiatu dena, Julen Agirreburualde, eta hark erdi brometan sarri aurpegiratzen digu bera lasterketak jokatzen zebilenean sekula ez ginela joaten ikustera eta derrigorrean utzi beharra izan zuenean hasi ginela denok. Transplantea egin zioten Juleni eta utzi egin behar izan zuen, baina orain hasita dago gurekin berriz, eta azpimarratu nahiko nuke hori, sekulako meritua duelako. Halaxe hasi ginen gu, asko uste gabe, eta gustatu zitzaigunez erosi genuen gero errepideko bizikleta ere, bigarren eskukoa.

## Txirrindularitza egokituan zabilta, C4 kategorian.

Bai, desgaitasun bat daukat jaiotzetik. Ezkerreko hanka eskuinekoa baino hiru zentimetro laburragoa daukat, ez daukat orkatilarik eta hiru behatz falta ditut ezker oinean. Kaleko zapatila ortopedikoekin hasi nintzen ni bizikletan, baina gustua hartu nionean hasi nintzen galdezka ea non



*“Txirrindularitza egokituko Cofidis Promesas taldean sartzea da nire ametsa”*

egin ote nitzakeen kaladun oinetakoak laguneren moduan ibiltzeko. Arnedon, Luck dendan, egokitu zizkidaten oinetakoak, eta erosi nuen bizikleta berria ere, hobea. Gero etorri zen aukera hau. Txirrindularitza egokituan C4 kategorian dihardut. C1etik C5era arteko mailak daude, desgaitasun maila handienetik txikienera.

### **Nola eman zenuen lehiaketarako pausoa?**

Lagunek beti esaten zidaten animatzeko txirrindularitza egokituko lasterketaren baterako izena ematen, baina nik ez nien kasurik egiten, niretzat txirrindularitza lagunekin irteera zelako eta haiei jarraitzeko gai izatea bera lorpenetzat neukalako. Baina halako batean etorri zen bezero bat farmaziara eta hasi zitzaidan txirrindularitzaz hizketan. Amador Granados txirrindulari paralinpiko usurbildarra ezagutzen zuela esan zidan, Euskadiko Txirrindularitza Federazioan entrenatzaile ibilitakoa, eta eman zidan bere kontakua. Deitu nion Granadosi eta hark proposatu zidan txirrindularitza egokituko lizentzia ateratzea eta lasterketaren baterako izena ematea. Kasu egin nion. Iaz, berriz, Espainiako Txirrindularitza Federazioak talentu berriak erakartzeko hiru eguneko topaketa antolatu zuen azaroan, eta haien desgaitasun parametroetan sartzen nintzela egiaztatu eta gero, izena eman nuen. 50 lagunek eman genuen izena eta hogeitau hautatu gintuzten haietatik. Sekulako sorpresa izan zen niretzat, ez nuelako inondik inora haien deirik espero. Hiru eguneko egonaldi bat egin nuen Espainiako selekzioarekin, egin zizkiguten FTP testa, laktato probak, indarra neurtzeko beste zenbait proba, bai eta proba psikologiko batzuk ere, eta egia esan, profesionalen pare zaindua sentitu nintzen. Espainiako selekzioaren barruan bada paralinpikoen talde bat Cofidis Promesas izenekoa eta aipatu ziguten han geundenotako batzuk beharbada izan genezakeela aukera talde horretan sartzeko. Gai ikusten bagintuzten, deituko zigutela agindu ziguten.

### **Eta iritsi zitzaizun dei hori.**


Halakotan pentsatu gabe etxeratu nintzen ni egonaldi hartatik, hiru egun haietan gozatuta eta lasai, baina urtarrean deitu egin zidaten. Oso argiak izan ziren nirekin. Esan zidaten oraindik ez neukala Cofidis Promesasen sartzeko besteko mailarik, baina ikusi zizkidatela gauza onen batzuk eta urtebeteko jarraipena egingo zidatela

*"Desgaitasun bat daukat jaiotzetik. Ezkerreko hanka eskuinekoa baino hiru zentimetro laburragoa daukat, ez daukat orkatilarik eta hiru behatz falta ditut"*

ikusteko urtebetean nola eboluzionatzen nuen. Eta proposatu zidaten Extremaduran jokatzekoa zen Europako Paracycling txapelketan parte hartzea. Ni sekula ez nintzen lehiatu aurrez, baina animatu ninduten lagunek eta etxeokok eta eman nuen izena. Julenek [Agirreburualde] eman zizkidan aholku batzuk ere, eskertzen dizkiodanak, eta haiek kontuan hartuta joan nintzen, bizikletako bere monoa hartuta.

### **Martxoaren 1etik 3ra jokatu zen txapelketa hori Extremaduran eta estreinakoa izateko ez zinen batere txarto ibili.**

Ba ez. Ostiralean bilera tekniko bat izan genuen, zapatuan 80 kilometro inguruko lasterketa jokatu genuen Casar de Casarasen, eta domekan, erlojupekoa. C4 kategorian lehiatu nintzen. Kategoria horretan, bi sail daude: batetik lehiatzen dira handbike eta trizikloak, eta bestetik, tandemak eta pistako edo errepideko txirrindulariak. Nire kategorian bederatzi txirrindulari lehiatu ginen eta bigarren egin nuen. Haize handia egin zigun kontra, baina han neuzkan laguna eta aita erreferentziak emateko. Julenek hirugarren nindoala esaten zidan eta kontzentratzeko, eta bien animoei esker lortu nuen nire lasterketa egitea. Iazko Espainiako txapelduna zihoan nire aurretik, baina erorikoa izan zuen hark, eta lepauztaia hautsita lasterketa utzi behar izan nuen. Igandean erlojupekoa jokatu genuen, Caceresen. Zirkuito bati hiru buelta eman behar izan genizkion, 22 bat kilometro guztira. Erlojupekotarako prestatutako bizikletarekin lehiatu ziren asko, baina nik bezperakoa erabili nuen, daukadan bakarra. Julen falta nuen orduan erreferentziak emateko, baina atzetik inork harrapatzen ez ninduela ikusita, gustura egin nuen. Hori bai, zer izango den estreinako aldia izatea! Hiru buelta beharrean lau eman nizkion zirkuitoari. Bigarren egin nuen.



*Domekan Ponferradan  
jokatu zuten Espainiako  
Kopako lasterketan.*

**Europako txirringularitza egokituko lasterketa izan zen Extremadurako estreinakoa. Gero etorri da Espainiako Kopa, eta horren barruan, domekan Ponferradan jokatu zenuen lasterketa.**

Bai. Espainiako Kopa hiru egunetan jokatu da: igandean jokatu genuen lehenengo proba, Ponferradan, apirilak 20-21ean Murtzian izango da bigarrena, eta ekainaren 8-9an, A Coruñan. Eta Espainiako txapelketa maiatzaren 24tik 26ra jokatu da, Murtzian, baina han lehiatzeko derrigorra da Euskadiko selekzioarekin edo talde batekin izena ematea, eta nik ez daukat talderik. Hori bai, Extremadurako proba jokatu ondoren jakin nuen beka zeudela txirringularitza egokitan ari garenontzako. Dena den, 2024rako beka eskuratzeko, 2023ko emaitzak hartzen dituzte kontuan, eta ni aurten hasi naiz. Kirolgira deituta jakin dut, baina, Espainiako Kopan sailkapen orokorrean lehenengo hiruren artean egingo banu, datorren urterako beka eskuratzeko aukera izango nukeela. Hori da orain asmoa, bereziki igandean besteen pare ibiltzeko gai naizela ziurtatu ostean. Izan ere, dirua da proba guztietara joatea, eta babesle eta halakorik gabe ari naiz ni.

**Babesle eske hasiko gara hortaz.**

Eskertuko nuke laguntzaren bat, bai. Nire ametsa Cofidis Promesas talde horretan leku bat lortzea da, baina horretarako ere emaitzak behar ditut. Aipatu zidaten urtebetean jarraipena

egingo zidatela, eta horregatik oso garrantzitsua zait orain jokatu diren txapelketetan lehiatzea eta maila txukuna ematea.

**Hasiberria izateko ez daukazu presio makala!**

Bai. Kontua da nik ez nuela inondik inora espero maila honetan aritzea, baina emaitza onak lortzen ari naiz, eta badakizu, gehiago nahi orain! Tonto-tonto hasi nuen dena, eta orain hemen nago, elkarrizketa bat ematen, baina hala suertatu da dena eta aprobe txatu nahi nuke aukera hau.

**Eta hau dena entzunda Olinpiar Jokoez oroitu gara...**

Oso zaila da mundu hau. Nik garbi daukat hankak lurrean behar direla beti, eta lan handia egin behar dela egunero, baina amets ere egin behar du pertsonak, bai. 2024ko olinpiar jokoak bertan daude, baina lau urte barru etorriko da beste aukera bat, eta nork daki! Espainiako Kopa on bat egiten saiatu behar naiz ni orain. Ponferradara presio handiarekin joan nintzen domekan, iruditzen zitzaidalako gauza asko dauzkadala orain jokoan eta badakidalako Parisko Olinpiar Jokoak gainean izanda besteak beren sasoi onenean iritsiko zirela lasterketa horretara, baina bigarren egitea lortu nuen, Julio Enrique Bermejo iazko Espainiako txapeldunaren atzetik, 1:06:43ko denbora eginda. Elkarri erreleboak emanez aritu ginen lasterketa osoan,

eta C4 mailako beste bi txirrindularirekin batera jokatu genuen esprinean erabaki zen lasterketa. C4 eta C5 mailetakoak elkarrekin lehiatu ginen Ponferradan eta 43 bat kilometroko ibilbidea osatu genuen zirkuito baten bueltan. Maila handiko txirrindulariak ziren tropelean eta oso pozik itzuli naiz handik, haiekin lehiatzeko gai naizela ikusita.

### **Zeintzuk esango zenuke direla zure dohaiak?**

Burugogorra izatea bat. Lagunekin irtetzen naizenean ere beti ibiltzen naiz besteen gurpila zaintzen. Lehiakorra naiz. Beti aurrera egitekoa naiz, errementatuta bukatzekoa. Eta gehien-gehien mendateak igotzea gustatzen zait. Igotzailea esango nuke naizela, bai. Ordubete inguru izaten dut egunean entrenatzeko eta hemen bueltan ibiltzen naiz hara-hona.

### **Bakarka ari zara momentuan, talde barik. Nola daramazu hori?**

Badakugu zikloturisten talde bat Tropela izeneko, baina horixe. Kuadrillako lagun batzuk, Zumarragan bizi diren beste lagun batzuk eta Ezkion bizi den batek osatzen dugu. Bestela, Euskal Selektzioak badauka txirrindularitza egokituko talde bat, baina pistakoa. Hori bai, iaz Amador Granadosek aipatu zidan saiatuko zirela errepideko talde bat osatzen, baina arazo bera daukagu hor ere: ez daukagula babeslerik. Lortuko bagenu babesleren bat, Tolosaldeko talderen bat osatu ahalko litzateke, errepideko txirrindulariekin eta pistakoeekin.

### **Ez litzateke txarra maiatzean Espainiako Txapelketan parte hartu ahal izateko, ezta?**

Hori da. Zaila da babesleak lortzea, baina ate hori ez dugu itxi nahi. Badakit saiatzen ari direla.

### **Zerbait gehitu nahiko zenuke?**

Eskerrak eman nahiko nituzke. Batetik, etxekoei eta lagunei, beti hor daudelako. Bestetik, lankideei eta farmaziaren ugazabari, erraztasun guztiak eman dizkidatelako lasterketarako prestatzeko, entrenatzeko eta denerako, eta hirugarrenik, baita Legazpiko Telleriarte klubari ere. Ahaztu gabe, botikako bezeroak! Legazpin bertan baino jende gehiagok ezagutzen naute Elgoibarren eta bezero denak aritzen zaizkit animoak ematen. Hemendik eskerrak eman nahiko nizkieke denei babes horregatik. Bestalde,

*"Lagunekin irtetzen naizenean ere  
beti ibiltzen naiz  
besteen gurpila zaintzen.  
Lehiakorra naiz"*

badakit zaila dela babesleak lortzea, esfortzu handia delako edozeinentzat beste norbait diruz laguntzea, baina nik eskertuko nuke edozein laguntza edo aholku. Prestatzaile fisikorik eta halakorik gabe ari naiz, baina saiatzen naiz entrenamendu serioak egiten, janaria zaintzen, eta ahal dudan prestakuntza hoberena eramaten. Garminetik eskaintzen duen teknologia erabiltzen dut entrenamenduak prestatzeko. Teknologia horrek markatzen dit daukadan denboran zer nolako entrenamenduak egin ditzakedan, eta horri egiten diot kasu nik. Iruditzen zait aurten asko aurreratu dudala modu horretan.





## || Luzianoren kolore eta testura berriak

Luziano Ruiz-Poveda (Elgoibar, 1931) margolari elgoibartarraren lanak jarriko dituzte ikusgai Kultur Etxean, gaurtik apirilaren 27ra arte. Orain arte egindakotik oso bestelako lanekin dator margolaria, eta kolore eta testura berriak aurkeztuko dizkigu. Gaur egun Madrilen bizi da, baina bere jaioterria ez du ahaztu eta ilusio berezia egiten dio erakusketa honek. Luziano bera ez da Elgoibarrera etorriko, baina gaur arratsaldeko inaugurazio ekitaldian bere seme Miguel egongo da.

✍ Ainhoa Andonegi / 🎨 Luziano

Luziano Ruiz-Poveda Elgoibarren jaio zen 1931n. Haurra zelarik, anai-arrebekin batera itsasoratu zen *Habana* ontzian, 1937ko udaberrian, gerra betean, haur talde handienak kanporatu zituztenean. Frantziara eraman

zuten, eta han, Parisko familia batek hartu zuen. Familia hark eragin handia izan du bere bizitzan. Elgoibarrera itzuli zenean, pintatzeko desira sentitu zuen eta Arte eta Ofizioen Eskolan hasi zen marrazketa eskolak hartzen.

Ezkonberritan, Madrilera aldatu zen, eta han grafista lanak egin zituen Gran Vian zeuden zinema aretoetarako filmen kartelak eginez, eta gerora, Madrilgo gau giroko erretratuak egin zituen. Handik urte batzuetara, Parisera itzuli zen berriro, eta margolari egin zen. Denboraldi luzeak igaro zituen Montmartren, eta harremanak egin zituen beste artista batzuekin.

Han eta hemen hainbat erakusketa egin ostean, 1962an, arte galeria propioa ireki zuen Madrilgo Castellana Hilton hotelean. Hotel hartan hartzen zuten ostatu, besteak beste, Espainiara filmak grabatzera etortzen ziren aktoreetako askok. Horri esker pertsonaia ospetsuen erretratuak egin ahal izan zituen, Omar Sharif-enak edo Stephen Boyd-enak, esaterako. Geroago, Madrilgo Meliá Princesa hotelean zabaldu zuen beste arte galeria bat, eta, 1976an, Claudio Coello kalean ireki zuen gaur egun oraindik zabalik dagoen galeria. 1971n beste galeria bat ireki zuen Zarautzen. Jarduera artistiko handia izan zuen bertan, baina, osasun arazoak tarteko, itxi egin zuen 2017an.

Ipar Ameriketako arte merkatari bati esker, erakusketa zabaldu zuen New Yorken, eta urte batzuk geroago Texaseko, Oklahomako eta Mexikoko hainbat aretotan ere bai. Ugariak dira bere ibilbidearen baitan egin dituen banakako erakusketak eta kolektiboak, eta lehiaketa eta sariketa askotarako ere aukeratu izan dute.

Luzianoren lanak ikusgai daude museoan eta erakundeen bildumetan: Madrilgo Arte Ederren Zirkuluan, Kutxa eta beste banku-erakunde batzuetan, Pandhale Plains museoan (Texas), Kultura eta Defentsa Ministerioan; baita Espainiako, Frantziako, Estatu Batuetako, Indiako, Japoniako, Hegoafrikako eta beste herrialde batzuetako bilduma pribatu garrantzitsuetan ere.

Luzianoren jarduera artistikoan garrantzia handia izan du paisaiak eta leku interesgarriak bilatzeko izan duen nahiak. Horrek Espainia osoan barrena bidaiatzera eraman du, bere margolanetarako bereziak ziren herriak edo beste herrialde batzuetako pertsona bereziak aurkitzeko. Hala, Frantzian, Marokon, Italian, Nepalen, Turkian... ibilitakoa da, turismoa gaur egun bezain zabalduz ez zegoen garaian. Bidaia horiek oso garrantzitsuak izan ziren bere margolanentzat, eta nabari da bere iruditerian.

Luzianoren lanaren zati handiena erretratuak, paisaiak eta herriak izan dira orain arte, askotan bere haurtzaroko auzoa eta etxea gogora ekartzen dutenak. Bidaia asko egin dituen arren, jaioterriko oroitzapenak izan ditu beti erreferentzia bere lanetan, baina gaur egun estilo eta etapa berri batean sartuta dago. Etapa berrian, errealitatearen erreferentzia guztiak alde batera utzi ditu, materia, testura eta kolorea bakarrik erabiltzeko, eta lengoia plastiko garbiagoa sortu du.





# SEIGARRENEAN, TXAPELDUN

✍️ Ainara Argoitia


Espainiako Kopako seigarren finala balekoa izan du Athleticcek. Zapatuan jokatu zuen Mallorcaren kontra, Sevillan, eta 25. titulua eskuratu zuen, majo sufrituta. Penaltietan gailendu zitzaion Athletic Mallorcari, 4 eta 2ko emaitzarekin. Zapatukoa historikoa zela jakitun, athletic zalez bete zen Sevilla asteburuan, eta tartean, dozenaka elgoibartar eta mendaroar ere izan ziren. Atzo, berriz, jende olde batek hartu zuen Bilbo, itsasadarrean gabarra ikusteko. 40 urte zeramatzan Athleticcek Espainiako Errege Koparen bila eta handikiro ospatu dute Athleticen zaleek. Hona hemen Sevillara joandako zenbaiten argazki eta bizipenak.

**ASIER ATORRASAGASTI** eta **ION ODRIUZOLA:**

"Lur azpian ere ibili ginen sarrera bila, baina azkenean sarrerarik gabe joan ginen Sevillara. Hala ere, sekula ez dugu ahaztuko han bizitakoa. Bagenekien ez zela erraza izango, baina ez genuen uste hainbeste kostatuko zitzaigunik, egia esan. Hotel bateko harreran ikusi genuen partida. 35 urte eta bost final eman ditugu honen zain eta izugarria izan da. Bariku eguerdian irten ginen Elgoibartik eta iritsi ginenerako zuri-gorria zen Sevilla. Zapatuan, goizeko hamaiketan lehenengo tabernara sartu ginenerako garagardorik ere ez zegoen! Sevillarrei gain hartu zien zapatukoak! Joaldunak, txarangak, familia osoak zuri-gorritz jantzita... ahaztezina izan da. Eta eguenean (atzokoz) Bilbora joango gara trenez, hangoa ere sekulakoa izango delako.







**ITZIAR GURRUTXAGA:** "Aurreko asteazkenean erabaki nuen Sevillara joatea, azken orduan. Athleticceko beteranoen taldean sartuta nago eta sarrera bat eskaini zidan klubak, baina nik etxekoekin joan nahi nuen eta zalantzan ibili nintzen, ez genuelako beste sarrerarik eskuratu. Semea eta ahizpa oso athleticzaleak ditut. Semeak berak animatu ninduen joateko. Aukera hori ez galtzeko esan zidan eta nire taldekide izandakoek sinatutako kamiseta eraman nuen jantzita, propio. Kostatakoa izan da, baina ez nuen besterik espero, final batean edozer gerta daitekeelako eta gehiago favorito gisa joanda, presio hori kudeatzea ez delako erraza izaten.

Izugarria izan da han bizitakoa, besteak beste nesken taldearekin irabazitako ligetako oroitzapenak berriro zaizkidalako. Familia osoak ikusi ditut han, haur jaioberrieekin eta edade handiko aiton-amonekin. Esaten dute ehun bat mila athleticzale izan ginela han, baina bake-baketan igaro genuen eguna. Polizia asko ikusi genuen, hainbeste lagunen artean beti egon daitezkeelako lau mozolo jaia zapuzteko, baina ez, giro sanoa gailendu zen. Athletic sentimentu bat dela nabarmen gelditu da berriro ere. Pena bakarra daukat: Sevillakoa semearekin batera bizi ezin izana".

**IÑIGO LOIOLA:** "Eguenean joan ginen gu Sevillara eta itzulerako bidean harrapatu gaituzu orain (astelehena). Han bizitakoa ezin da berbaz adierazi. Ahaztezina izango da. Han ez zegoen Athleticen elastikorik ez zeukanik. Zapatuan, iluntzeko zazpiretatik goizaldeko lauretara urik ere ez genuen topatu. Finala irabaztean liberazio halako bat sentitu nuen, seigarren ahaleginean eskuratu dugulako".





**JOSEBA MANTECA:** "Egunean iritsi ginen Jon [Fernandez] eta biok Sevillara, eta batu zitzaizkigun gero Elgoibarko beste lagun batzuk ostiralean. Azkeneko orduan lortu genituen denontzako sarrerak, eta pozik. Mendaroko realzale batzuek hartuta zuten etxea Sevillan, Reala finalera iritsiko zelakoan eta haien lekuan joan ginen gu. Eta zorionekoak izan gara etxejabeak prezio berean utzi digulako etxea. Sevillan bizitakoa zoramena izan da, batez ere zapatukoa. Lekurik ere ez zegoen tabernetan, eta kaleak ere gainezka zeuden. Partidan uste baino gehiago sufritu genuen. Atsedendian etsipena zen nagusi Athleticen zaleon artean. Inork ez zuen penaltietara iritsi nahi; finala galtzeko beldurra nabaria zen. Hango kantuak, hango giroa... Cartujak San Mames ematen zuen. Ikaragarria izan zen. Athletic Hirian sartzea lortu genuen guk behintzat, baina hain zegoen jendetza handia, uste baino lehenago erretiratu ginela handik ere. Gehiegia izan da. Jende artean ibiltzeko gogoia ere kendu zait denbora baterako. Gabarra, beraz, telebistaz ikusiko dut".



**IBON ALONSO:** "Ostiralean joan ginen Sevillara, familiar, sarrera bana eskuratuta. Ostiralean gure aitaren urtebetetze eguna izan zen, eta zapatuan, izebarena, eta pentsa zer nolako ospakizuna izan genuen! Madriletik trenez joan ginen eta Sevillara bidean dena zen zuri-gorria. Han, berriz, zer esanik ez!. 21 urte dauzkat eta Athleticen titulu bat eskuratu osteko ospakizunen berri baneukan etxean entzunda, baina bizitzea sekulakoa izan da. Partidan sufritu genuen, hori bai. Atsedendaldira lur jota iritsi ginen, baina penaltietan hartu genuen arnasa. Bazen ordua! Liberazio halako bat izan da irabaztea. Aitortu beharra daukat orain datorrena denak aspertzeko bestekoa izango dela, baina..."



# SEVILLA, ATHLETIC, KOPAKO FINALA

Ainhoa Lendinez, EITBko kazetaria

Ostegun iluntzean iritsi ginen Sevillara. Kiroletako lantalde zabala (telebista+irradi) eta ni neu, albistegietatik. Gainerakoen lana kirol ekitaldia kontatzea zen gehiago; nirea, berriz, han bizi zen giroa helaraztea. Egia esan, ni ez naiz futbolzalea (ez Athleticeko, ez Realeko, ez besteko), baina Sevillara bidaia opari handia izan da. Sekulako asteburua. Izugarri disfrutatu dut uneoro. Ostiral eta larunbat, goizetik gauera aritu gara lanean. Makina bat zuzeneko konexio eta elkarriketa. Ostiral goizean, Athletic Hirian, festagune erraldoiko prestaketetan. Arratsaldean, kaleko giroan. Larunbat goizean, korrikalditoxa egiteko tartea ere atera nuen, Guadalquivir inguruan. Zoragarria. Ondoren, berriz ere kaleko giroa, eta iluntzetik aurrera, Athletic Hirian, partidako giroa zuzenean kontatzeko.

Oro har, dena atera da ondo, eromena izan den arren. Jendeak ez daki telebistaren bestaldean nolako azpiegitura dagoen: errealizadoreak, erredaktoreak, teknikariak, kameralaria, prentsaburuak... mila faktore, hamaika lagun, 40 segunduko konexio batek huts egin ez dezan. Eta hala ere, arazoak izaten ditugu: kameraren bateria agortzen hasi zitzaigun, argiztapen fokoa apurtu ere bai... estaldura arazoak, zaratarengatik audioak saturatzea... hori gutxi ez, eta jendea festa giroan dagoenean lan egitea ez da erraza. Esaterako, partidako azken zuzenekoan, zale bat prentsa-plataformara igo zen, eta planoan sartu zitzaigun. Anekdotak politikak ere izan dira: larunbatean, Giralduko katedralean bikote bat ezkondu zen. Elizatik atera zirenean milaka athleticzale zeuzkaten atarian: *"Los novios son del Athletic"* oihuka. Seguru ez dutela ezkontza eguna inoiz ahaztuko. Niri egokitu zitzaidan kameralaria sevillarra zen, oso jatorra. Harrituta zegoen jendetzarekin, zaleen euforiarekin, edateko erraztasunarekin. Esan zidan, asteburuan kilo batzuk argalduko zituela, atzera eta aurrera ibili nuelako jo eta su (kar, kar). Ostiral iluntzean, esaterako, Giralda inguruak



*"Sevillara bidaia opari handia izan da.  
Sekulako asteburua.  
Izugarri disfrutatu dut uneoro"*



Bilboko Pozas zirudien. Zuzenekoak balkoi batetik egin nahi nituen. Bai lortu ere. Taberna zahar baten goikaldeko etxebizitzan egin genituen zuzenekoak. Politak izan zen. Zuzenean sartzen ginen bakoitzean, behean, jendea oihuka hasten zen. Asteburu zoroa izan da, hara eta hona ibili, mila grabazio eta mila zuzeneko, baina izugarri esperientzia polita. Gogoeta pertsonal bat ere ekarri dut Sevillatik (errespetuz esan nahi nuke hau): ez dut ulertzen futbolarekiko fanatismo hori. Jendeak dirutza gastatu du asteburu bakar baterako (jokalaria gero eta aberatsago, eta herritar xumeak maileguak eskatzen partidara joateko!). Milaka kilometro egin, oporraldiak aldatu... partida bat ikusteko! Argi dago nork bere zaletasunak dauzkala, baina neurriak harritu egin nau. Francok gizartea lokartzeko erabiltzen zuen futbola, "herriaren opioa". Iparra galdu dugula uste dut, futbola moduko zerbaiti halako garrantzia ematen badiogu. Beste gauza batek ere harritu nau: Realzale askok nahiago zuten Mallorcak irabaztea. Sekula ez dut jarrera hori ulertuko (alderantziz ere ez, noski). Horiek gorabehera, eskerrak ematen dizkiot EITBri aukera hau eman didalako. Zoragarria izan da.

Mendian eta, oroa har, bizitzan bezala, Sevillan ere onena ematen saiatu naiz, eta %20 Odean gozatzen. Biharamun gozoa daukat, lortu dudalako sentsazioa. Larunbatean 02:30etan itzali nuen mikrofonoa, hiru ordu eskas lo egin, Sevillan hegazkina hartu eta 10:00etan hartu nuen lur Loian. Zuzenean joan nintzen Anbotora. Niretzat, ez dago hori baino gabarra hoberik!

## TELMO FERNANDEZ-CAMPINUN ETXABE Idazlea

'A flor de piel' poesia liburua argitaratu du Telmo Fernandezek (Elgoibar, 1999), bere bigarrena. Beste norabait bizitzera doan gazte baten bizipenak bildu ditu poemetan Fernandezek, eta idaztean sentitu duena sentiarazi nahi dio irakurleari.

12 urterekin piztu zitzaion idazle izateko gogoia Fernandezi, eta ordutik ez dio idazteari utzi. 'Cada sitio' poema liburua izan zen bere lehenengo lana 2021ean eta 'Estella' fantasiako nobela argitaratu zuen 2022an. Proiektu berrietan lanean dihardu egun, eta idazle gisa trebatzen, errezitaldi eta mikrofono irekietan parte hartzen duen bitartean. Madrilen bizi da 2021a geroztik, eta lanak uzten dion denbora libre guztia idazteari eskaintzen diola dio. Pitxintxun eskuratu daiteke liburua.

 Ainhoa Andonegi /  Javier Vaz



*“Egunen batean idaztetik bizi nahiko nuke”*

### **'A flor de piel', bigarren poesia liburua kaleratu berri duzu. Zertan datza?**

2021ean etorri nintzen Madrilera bizitzera, eta orduan hasi nintzen liburu hau idazten. Batzuetan pare bat bertso idazten nituen, beste batzuetan estrofa solteak, eta tarteka, poema osoak ere bai. Hasieran ez nekien idazten ari nintzen horrekin zer egingo nuen, baina halako batean konturatu nintzen idatzita neukan guztiaren artean bazeudela haien artean lotura zuten testuak. Konturatu nintzen istorio bat kontatzen zutela testu haiek, eta orduan hasi nintzen era kontziente batean liburu honetan lanean. Aldi berean, mikrofono irekien proiektuak ezagutu nituen. Tabernetan jartzen dituzten mikrofonoak

dira, artistek euren lanak ezagutzera emateko. Gehienetan musikariek hartzen dute parte, baina nik ere hartu izan dut, poemak irakurtzen. Horrelakoetan parte hartzeak aukera berri asko zabaldu dizkit. Jende interesantea ezagutu dut eta poesia ulertzeko modu berriak ikasi ditut. Egoera horren baitan idatzi dut liburua. Bi urte eman nituen idazten, eta orain dela urtebete bukatu nuen.

### **Herri txiki batetik hiri handi batera doan pertsona baten istorioa kontatzen duzu liburuan. Zuk ere bide hori egin duzu Elgoibartik Madrilera. Esan daiteke zure istorioa jaso duzula liburuan?**

Idazten dudana ez da inoiz niri buruzkoa

100%ean, baina deskribatzen ditudan emozio eta sentimenduak bai izaten dira nireak. Kontatzen dudana istorioa tarteka nire bizipenetan oinarrituta egoten da, baina beste une batzuetan erabat asmatutakoa izaten da. Egia da azken bi-hiru urteetan izan dudana egoera deskribatzen duela hein batean: Elgoibartik Madrilera etorri nintzen, lehenengo aldiz etxetik kanpo bizitzen, dena berria, ikasketak amaitu eta lanean hasi naiz... Ez dakit norengana iritsiko den liburu hau, baina argi utzi nahi diot irakurleari nire onena jarri dudala liburu honetan, eta idaztean gauza pila bat sentitu ditudala barruan. Lortuko banu irakurleak sentitzea nik sentitu dudana guzti horren parte txiki bat, pozik geratuko nintzateke.

### Noiz eta nola piztu zitzaizun idazteko gogoa?

Nire amak asko irakurtzen du eta saiatu izan da guri ere zaletasun hori transmititzen, baina nik umetan gorroto nuen. 12 urterekin konturatu nintzen arazoa zela ordura arte ez nituela nire gustuko liburuak aurkitu, baina topatu nituenean nire gustuko idazleak, argi ikusi nuen idazle izan nahi nuela nik ere. Kurioso da, baina gaur egun daukadan lagun onenatarikoa ere liburu baten bidez ezagutu nuen. Harry Potter irakurtzen nengoen eta gelakide bat ere bai. Une hartan batu ginen, eta gaur egun ere, lagun minak gara. Nire gustuko idazleen elkarrizketak irakurtzen eta ikusten hasi nintzen, eta haien aholkuak jarraituz hasi nintzen testuak sortzen. Nire ikasketak enpresa mundura begira egin ditut; ez daukate literaturarekin edo idaztearekin zerikusirik, baina ikasketak lagungarri izan zaizkit liburu argitaratzeko prozesuan, izan ere, testuak idatzi ondoren pauso asko eman behar dira proiektua gauzatzeko. Argitaletxe asko bisitatu behar izan ditut, neure burua aurkeztu, liburu saldu... Une honetan kontsultore moduan egiten dut lan, gaur gaurkoz idazteak ez didalako bizitzeko ematen, baina norbaitek galdetzen didanean zer naizen, idazlea naizela erantzuten diot. Oso argi daukat idazlea naizela, eta gustatuko litzaidake egunen batean idaztetik bizi ahal izatea. Lanak uzten didan gainerako denbora libre idazteari eta literaturari eskaintzen diot.


### Poesia aukeratu duzu berriz ere. Zer dela eta?

Niri idaztea gustatzen zait, istorioak kontatzea, baina estiloa ez zait horrenbeste inporta. Hasi nintzen ipuin motzak idazten,

poemak, nobelak... nire etxeko logela testuz beteta daukat, eta 2022an *Estella* nobela kaleratu nuen. Musika ere gustatzen zait, eta kantak ere idazten ditut. Poesia izan da orain kontatu nahi nuena kontatzeko hoberen etortzen zitzaidan estiloa eta horregatik aukeratu dut hori, baina niri idaztea gustatzen zait.

### Madrirek arterako ateak zabaldu dizkizu?

Madrid oso hiri interesgarria da. Jende interesgarri asko ezagutu dut, oso jende jatorra eta irekia topatu dut eta lagun handiak egin ditut. Horri esker, liburu hau argitaratzeko prozesua oso desberdina izan da, orain dela hiru urtekoarekin alderatuta. Oraingoan nik aukeratutako lantaldearekin egin nahi nuen lan eta horrela negoziatu nuen argitaletxearekin, eta esaterako, liburu portada eta iruditeria guztia hemen ezagutu dudana Javier Vaz argazkilari eta diseinatzaile grafikoarekin egin dut. Gauza asko ikasi ditut lehenengo liburutik bigarrenengorako tartean eta oso desberdina izan da prozesua.



## Astelehenean zabalduko dute Atxutxiamaikaren eta Ludotekaren udaldian izena emateko epea

**E**lgoibarko Izarrako Atxutxiamaika aisialdi taldeak eta Udal Ludotekak prest daukate udaldirako programa, eta interesatuek apirilaren 15etik 28ra arteko epea izango dute izena emateko. Ekainaren 24tik uztailaren 19ra arteko zerbitzua emango dute, bi txandatan banatuta: ekainaren 24tik uztailaren 5era izango da lehenengoa eta uztailaren 8tik 19ra bigarrena. Eskaintza adin tarteka antolatu dute, eta bakoitzaren neurria egokitu dute programazioa. Txokoak, irteerak eta egonaldiak eskainiko dituzte, besteak beste. Uztailaren 22tik 24ra txoko osagarriak eskainiko ditu



Atxutxiamaikak. Informazio gehiago eta izena emateko [elgoibarkoizarra.eus](http://elgoibarkoizarra.eus) webgunean sartu behar da.



### Giorgos Seferisen poemak euskaratu ditu Maite Lopez Las Herasek

Munduko Poesia Kaiarak bildumako 50. zenbakian Giorgos Seferis poeta greziarraren antologia kaleratu du Susa argitaletxeak, eta Maite Lopez Las Heras idazleak euskaratu ditu Seferisen poemak. Elgoibarren bizi den idazle azkoitiarrak azaldu duenez, ohore hirukoitza izan da Seferis itzultzea: Batetik, "miresten" duen poeta delako; bestetik, Munduko Poesia Kaiara bilduman parte hartzea bere "ametsa" zelako (50. alea itzultzea egokitu zaio) eta, azkenik, itzulpenak artelan gisa ulertzen dituzte, horrek arduraz egitera bultzatu duelako, eta Seferisek berak zuen zorrotasuna mantentzeko ahalegina egin behar izan duelako. Giorgos Seferis 1900. urtean jaio zen Smirnan, egungo Turkian, baina handik ihes egin behar izan zuen, inperio otomandarraren inbasioaren ondorioz.

### Bertan behera utzi dute Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek gaur ematekoa zuten saioa, Herriko Antzokiko langileek hasi duten grebogatik

Aisilan enpresak azpikontrataturako Elgoibarko Herriko Antzokiko langileek gaur hasiko duten grebaren ondorioz bertan behera geldituko dira hainbat ikuskizun, tartean gaurko iragarrita zegoen pailazoaren saioa. Bertan behera utzitako emanaldirako sarrerak erosi zituztenek bi aukera izango dituzte: sarrerak gorde ikuskizuna eskainiko den egunerako edo dirua itzultzeko eskatu. Lan-gatazka konpondu ondoren itzuliko dute dirua. Bide hori aukeratzen dutenek txarteldegira jo beharko dute, larunbatetan, 18:15etik 20:45era bitartean. Asteburu honetako zine emanaldiak ere bertan behera gelditu dira baina Ongarriren proiektioak mantenduko dira.



## 'Surflaria' liburua aurkeztuko du Uxue Alberdik Lilan

Uxue Alberdi Estibaritzek (Elgoibar, 1984) *Surflaria* albuma (Ikastolen elkarteak) argitaratu du Susana Martin komikilariarekin batera, eta apirilaren 18an aurkeztuko du Elgoibarren, Lila emakumeen etxean. Bizitzaren eta heriotzaren urek bat egiten duten istorioa da *Surflaria*. Amaiak, komikiko protagonista nagusietako batek, jasoko duen telefono dei batekin hasten da istorioa. Dei horretan esango diote hamar urte igaro ostean hiltzat jo dutela Eki, itsasoan desagertu zitzaion laguna.

Liburuaren egile biak izango dira aurkezpenean, eta ekitaldia bera baliatuko dute



euskal komikigintzari buruzko mahai-ingurua egiteko. Uxue Alberdik, Susana Martinek eta Dani Fanok hartuko dute parte solasaldian. Euskaraz izango da ekitaldia, publiko osoarentzako irekia. 18:00etan hasiko da.

## 'Sólo hasta mañana' antzerkia, gaur zortzi, Herriko Antzokian

*Sólo hasta mañana* antzezlana iritsiko da apirilaren 19an Herriko Antzokira, Erre Produzioak taldearen eskutik. Euskal antzerki eta zinemagintzako aktore ezagunak dira protagonista, eta gazteen egungo gaiak lantzen dituzte. Nerea Elizalde, Lorea Intxausti, Mikele Arizkorreta eta Albar Cirada dira aktore protagonistak, eta obraren zuzendaria, berriz, Gorka Minguez. Harreman irekiei buruzko antzezlana da, eta sexualitatea ulertzeko modu berriak aurkezten ditu. Ikuspegi komiko batetik, baina sakontasunez lantzen dira gaiak obran



zehar, eta harremanek taldeari nola eragiten dioten azalduko du.

Sarrerak salgai daude [herrikoantzokia.eus](http://herrikoantzokia.eus) webgunean, eta egunean bertan txarteldegian erosteko aukera ere egongo da.

## Liburuak bueltatzeko sistema berria du Gotzon Garate udal liburutegiak

Elgoibarko Gotzon Garate Udal Liburutegiak liburuak bueltatzeko sistema berria jarri du martxan. Aita Agirre Kulturguneko arkupeetan ipini duten kaxari esker, eguneko 24 orduetan egongo da maileguan hartutako liburuak bueltatzeko aukera. Liburuak edota bestelako materiala kaxa barruan gordeta geratzen dira eta liburutegiko arduradunek jasoko dituzte.



## Bazkaria eta kontzertuak iragarri dituzte Elgoibarko Musikarien Elkartearen egunerako

**A**pirilaren 20an ospatuko dute aurten EME Eguna, eta bazkaria eta kontzertuak iragarri dituzte. Aurten, gainera, bazkaria irekia izango da eta nahi duen orok izango du parte hartzeko aukera. Maalan izango da ospakizuna. Bazkaria egingo dute lehenik, eta 17:00etatik aurrera EME elkarteko taldeen kontzertuak egongo dira: Gabi eta Alfon, XUT, Unnamed, Txoteko Ezpata, DJ Agote, Kitziki, Bikustik, Mutilated Soul eta Jeyzi's Tyros taldeak igoko dira oholtzara. Kontzertu hauen



ostean, EMEko kideek hainbat talde ezagunen bertsioak joko dituzte.

### Trinitateetako Danborrada iragartzeko kartel lehiaketa antolatu dute



Atabal elkarteak maiatzaren 25ean, 23:00etan egingo den Trinitateetako Danborrada nagusia iragartzeko kartel lehiaketa antolatu du, Elgoibarko Udalaren laguntzarekin. 18 urtetik gorakoek hartu dezakete parte lehiaketan. Teknika librea izango da, baina A2 neurria edo proportzionala gorde beharko du. Lanak apirilaren 22rako entregatu beharko dira Kultura Sailean (Aita Agirre, 3), izenik gabe eta euskarri gogorrean. Irabazleak 300 euro jasoko ditu saritan. Lehiaketari buruzko oinarri guztiak *elgoibar.eus* webgunean aurkituko dituzue.

### Aitziber Garmendia aktorea ekarriko dute astelehenean Mendarora, gazteei erreferente euskaldunak gerturatzeko

Herriko gazteei erreferente euskaldunak gerturatu eta euskararen erabilera sustatzeko asmoz, Aitziber Garmendia aktorea (Zaldibia, 1982) gonbidatu dute Mendarora In Leike kultur elkarteak eta Mendaroko Udalak. Astelehenean, hilaren 15ean, ekarriko dute Garmendia herrira, eta antzerkigintzaz, umoreaz, euskaraz eta beste hainbat kontuz arituko da, Ainara Argoitia kazetariaren galderai erantzunez. Udaletxeko udalbatza aretoan izango da saioa, 19:00etan. Solasaldia gazteentzako antolatu dute propio, baina gainerako herritarrek ere zabalik izango dute atea.





## Abertzaletasuna eta euskara, eztabaidagai

Zergatik eta zertarako euskaldun? programaren baitan *Euskara eta abertzaleak, bidegurutze berean?* izenburuko eztabaida-saioa antolatu dute Elgoibarko Izarrak eta Elgoibarko Udalak apirilaren 23rako, Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Aita Agirreko areto nagusian izango da saioa, 19:00etan hasita, eta hiru lagun gonbidatu dituzte: batetik, Joxe Manuel Odriozola Lizarribar (Altzo, 1948), udal euskaltegietao irakasle izandakoa eta azken boladan hizkuntzaren eta nazioaren arteko harremanak aztertzen jardun dena, eta bestetik, Julen Zabalo Bilbao (Basauri, 1957) EHUKo irakaslea eta Parte Hartuz ikerketa taldeko kidea. Zabalok hainbat lan argitaratu ditu nazionalismoa,

identitatea, herritartasuna edo subiranotasunari buruz, eta euskarak euskal nazioaren ardatz gisa jokatu beharreko funtzioaz ere hausnartu du. Moderatzaile lanak, berriz, Ainhoa Larrañaga Elorzak (Angiozar, 1973) egingo ditu. Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko irakaslea eta ikerlaria da bera.

Euskara eta abertzalegoaren egungo harreman eta loturak aztertuko dituzte, etorkizunari begira jarrita. "XXI. mendean, datozen hamarkadetara begirada jarrita, abertzaletasunaren diskurtsoa pizgarri edo galga da euskararentzat? Zein diskurtso eta ideologiak izan dezake potentziala euskararen pizkunde berri baterako?". Galdera horiei erantzungo diete, besteak beste.

### Mausitxa baserria bisitatuko dute hilaren 21ean, 'Auzoko Familiak' egitasmoaren barruan



*Auzoko Familiak* egitasmoan parte hartzen ari diren familientzako irteera antolatu dute apirilaren 21erako. 10:30ean batuko dira Guass-eko autobus geltokian, eta handik abiatuko dira Mausitxa baserrira. Baserria eta gaztandegia bisitatuko dituzte, eta 13:30erako itzuliko dira. Informazio gehiagorako eta izena emateko 747 489 048 telefonora deitu behar da. Plazak mugatuak dira, eta lehentasuna izango dute *Auzoko Familiak* egitasmoko partaideek.

### Mendarotik Herri Urratsera joateko autobusa antolatu du In Leikek

Maiatzaren 12an egingo da Senperen Seaskako ikastolen aldeko Herri Urrats jaia, eta In Leike kultur elkarteak autobusa antolatu du hara joateko. Autobusa 09:00etan abiatuko da Mendarotik, tren geltoki paretik, eta 20:00etan

izango da itzulerakoa. 10na euro ordaindu beharko dira autobuseko txartelagatik. 14 urtez azpikoak heldu batek lagunduta joan beharko dira. Izena emateko [mendaroninleike@gmail.com](mailto:mendaroninleike@gmail.com) helbidera idatzi behar da maiatzaren 5erako.



VII. URTEURRENA

*Jose Ignacio Sarasua Garate*

2017ko apirilaren 11n hil zen, 60 urte zituela.

***Betirako izango zaitugu gogoan.***

Etxekoak



VII. URTEURRENA

*Jose Ignacio Sarasua Garate*

***Zure oroimenak indartzen gaitu.***



ELGOIBARKO UDALAREN  
TXISTULARI TALDEA

VII. URTEURRENA

*Jose Ignacio Sarasua Garate*

***Izan zarenagatik  
eta erakutsi duzunagatik,  
ez zaitugu inoiz ahaztuko.***



**HARITZ**



## Aldamar Torneoa, C.D. Elgoibarrentzat



**D**ebako Amaiak Bat kirol taldeko presidente eta laguntzaile izan zen Jose Aldamar, eta haren omenez antolatzen dute urtero Aste Santuko oporraldian futbolari gaztetxoentzako txapelketa. Hiruko eran jokatzen duten txapelketara Lekeitioko eta Elgoibarko taldeak gonbidatu dituzte aurten, eta elgoibartarrak gailendu ziren. Lekeitiarrak izan ziren txapelkunorde eta etxeko taldea sailkatu zen hirugarren postuan.

Amaiak Bateko ordezkariek jakitera eman dutenez, guztiaren gaitetik, kiroltasuna eta giro ona nagusitu ziren. Txapelketaren hasierako partidari bi talde gonbidatuek, Elgoibarrek eta Lekeitiok, elkarren aurka jokatu zuten, eta Elgoibarrek irabazi zuen, 1-0 emaitzarekin. Jardunaldiko bigarren partidari, berriz, Amaiak Batek eta Lekeitiok bana berdindu zuten. Azken partidari, aldiz, Amaiak Batek Elgoibarko taldea izan zuen aurrez aurre, eta elgoibartarren aldeko 0-3ko emaitzarekin amaitu zen.

### HKT eskubaloi txapelketan txapelkunorde geratu dira Sanloko hiru jokalarik Gipuzkoako selekzioarekin

Hondarribia Kirol Taldea Eskubaloi Txapelketa beteranoaren 21. ekitaldian hartu zuten parte Sanloko hiru jokalarik joan den Aste Santuan. Infantil mailako lau talde lehiatu ziren nesken txapelketan: Txingudi, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroa. Ane Agirre, Haizea Luluaga eta Maria Amaro Gipuzkoako selekzioarekin aritu ziren, eta finalera ailegatu ziren. Bizkaiko selekzioa izan zuten aurkari finalean eta galdu egin zuten. Ane Agirre elgoibartarra izendatu zuten txapelketako atezain onena.

Sanloko talde gehiago ere aritu ziren lehiari Aste Santuan. Kadete mailako hiru talde, neskenak bi eta mutilena bestea (Urkunde, Neurri eta Astigarraga), Anaitasuna Torneoiari lehiatu ziren. Iruñeko Anaitasuna eskubaloi taldeak antolatzen du gazte mailetakoko jokalarientzako nazioarteko txapelketa hori. Txapelketa honen helburuetako bat da eskubaloiko klubei aukera



ematea liga txapelketetako azken txanpa prestatzea Aste Santuko etenaldian. Horrez gain, Iruñean egiten duten egonaldian beste hainbat aisialdi ekimenetan ere hartzen dute parte jokalarik gazteek SCDR Anaitasunak dituen instalakuntzetan.

## Boxeo jaialdia egingo dute Elgoibarren maiatzaren 4an

2019ko maiatzean egin zuten estreinakoz boxeo jaialdia Elgoibarren. Profesionalen arteko borroka jokatu zuten Soraluzeko boxeolari Ixa Rodriguezek eta Oksana Romanova ukrainiarrek (Rodriguez gailendu zen), eta amateur mailako bost borrokaldi ikusteko aukera ere egon zen Olaizaga kiroldegian jokatu zuten jaialdi hartan. Soraluzearrak gidatzen duen Sorabox taldeak antolatu zuen jaialdi hura Elgoibarko Udalaren laguntzarekin, eta orain, bigarren boxeo jaialdi bat ekarriko dute Elgoibarrera. Maiatzaren 4rako antolatu duten jaialdian amateur mailako hamar borrokaldi ikusteko aukera izango da. Ixa Rodriguezek azaldu duenez, emakumeen boxeo sustatzea eta ezagutzera ematea da euren asmo nagusia. Bera erretiratu da dagoeneko boxeotik, baina



Team Neskabox taldeko zortzi emakume igoko dira ringera, lau boxeo borrokalditan parte hartzeko; eta, gizonen arteko borrokaldiak izango dira gainerako seirak.

### Frontenis txapelketa antolatu dute Mendaron



Emakume zein gizonentzako frontenis txapelketak antolatu ditu Mendaroko Gazte Asanbladak. Ostiral arratsaldeetan jokatuko dituzte partidak Goñati pilotalekuan, eta uztailaren 20an jokatuko dituzte finalak, santanetako Gazteen Egunean. 15 urtetik gorakoek har dezakete parte, eta maiatzaren 6a izango da izena emateko azken eguna. Interesatuak 688 821 741 telefono zenbakian eman dezakete izena edo Instagram sare sozialean duten kontura mezua idatzita. Bikoteko 10 euro ordaindu beharko dituzte.

### 23 bikote lehiatuko dira plazako pala txapelketetan



Atzo hasi zituzten Emakumezkoen XI. Pala Txapelketa eta Gizonezkoen VII. Pala Txapelketak. Hamar bikotek eman dute izena emakumezkoenean eta hamahiruk gizonezkoenean. Eguen arratsaldeetan (18:00etatik aurrera) eta domeketan (11:00etan) jokatuko dituzte neurketak Kalegoen plazako frontoian (euria bada, Ikastolako frontoian). Ligaxka fasean 56 partida jokatuko dituzte guztira eta ekainaren 21ean jokatuko dituzte finalak.

# Mugertza krosetik igarotako atletak nabarmendu dira Munduko Kros Txapelketan



**M**intxetakoek munduko kros saltakaririk onenak ekartzen dituzte Elgoibarrera eta Mintxetako aldapetan lehiatzeak ez die kalterik egin, Belgradon (Serbia) jokatu berri duten Munduko Kros Txapelketan eskuratu dituzten emaitzak ikusita. Emakumezkoetan joan den urtarrilean Mugertza krosaren 80. ekitaldia irabazi zuen Beatrice Chebet kenyarra izan zen irabazlea. Jarraian lortzen duen bigarren titulua da. Lilian Rengeruk izan zen txapeldunorde, 2018ko Mugertza krosetan txapeldunorde izana; eta, Margaret Kipkemboi sailkatu zen hirugarren postuan, 2023ko Mugertza krosetan laugarren postua eskuratu zuen antxitxikaria. Gizonezkoen lasterketan Mugertza krosa irabazitako lau atleta lehiatu ziren Belgradon: Berihu Aregawi (2024), Kipkorir Kimeli (2022), Tadese Worku (2020) eta Joshua Cheptegei (2017). Munduko Txapelketa, baina, 2018ko kros ahaztezinean txapeldunorde izan zen Jacob Kiplimo ugandarrak irabazi zuen. Chebetek moduan Kiplimok ere eutsi egin dio 2023an Australian lortu zuen Munduko tituluari. Aurten Elgoibarko krosa irabazi zuen Berihu Aregawi etiopiarra izan zen txapeldunordea. Mintxeta Atletismo Taldeko presidente Zigor Diez Belgradon izan da, txapelketa zuzenean ikusten eta atleta zein managerrekin dituzten harremanak saretzen.

## 747 antxitxikarik hartuko dute parte Jose Gurrutxaga krosetan

Jose Gurrutxagaren omenezko lasterketaren 29. ekitaldia jokatu dute domekan Elgoibarko kaleetan. Elgoibarko eta Mendaroko 747 antxitxikarik eman dute izena Elgoibar Ikastolak antolatzen duen kirol proban, eta hamalau lasterketetan lehiatuko dira; adinka eta sexuka banatuta. 10:30ean hasiko da lehen lasterketa, 2016an eta 2017an jaiotakoena, eta 12:00etan hasiko da azken lasterketa, 2007. urtetik aurrera jaiotakoena. Kalegoen plazan hasi eta amaituko dira antxitxikaldi guztiak, eta sari banaketa ekitaldia ere plazan egingo dute. Parte-hartzaile guztiek jasoko dituzte dominak eta opariak.



# TRAILAREN JAI HANDIA

✍️ Ainara Argoitia  
📷 Ainara Argoitia / Iosu Juaristi

Kilimon Trail lasterketaren hamabigarren edizioa jokatu zuten zapatuan Mendaron, bero sapa handiarekin eta ibilbidearen azkeneko zatia aldatuta. Bi lasterketa jokatu ziren: 23 kilometrokoa eta 11 kilometrokoa. Lasterketa luzerako 195 lagun zeuden izena emanda, eta motzerako, berriz, 158.

Luzean, Gontzal Murgoitio elorriarra izan zen azkarrena gizonetakoan (2:05:33), eta Walter Becerra sestaoarrak eta Igon Mancisidor debarrek osatu zuten podiuma, 2:08:30eko eta 2:17:37ko denborak eginda. Emakumezkoetan, berriz, Ainara Urrutia aretxabaletarra nagusitu zen (2:42:01), eta Urrutiarengandik sei minutu eskasera helmugaratu zen Maite Maiora herriko lasterkaria (2:48:25). Hirugarren Ainhoa Caporossi zumaiarrak egin zuen (2:48:47). Ibilbide luzean, Lizarpetik Gaintxipia mendi tontorrera arteko denbora neurtu zuten. Krono igoera horretan, Gontzal Murgoitio berak egin zuen denborarik onena (0:03:02) eta beste bi azkarrenak Walter Becerra (0:03:35) eta sailkapen nagusian hogeita hamazazpigarren egin zuen Jesus Bagazgoitia izan ziren (0:04:08). Emakumezkoetan, Maite Maiora (0:05:04), Nerea Amilibia (0:05:05) eta Ainhoa Caparossi (0:05:08) izan ziren Lizarpetik Gaintxipia arteko bidea osatzen azkarrenak.

Lasterketa motzeko lehenengo hirurek ordu bete azpitik egin zuten. Imanol Inza zumarragarra izan zen helmugaratzen azkarrena (0:56:37), eta minutu eta hogeita zortzi segundora helmugaratu zen, Mikel Zabala. Gizonetakoan podiuma Mattin Odriozolak osatu zuen. Lehenengo hamarren artean egin zuen Sergio Agirregomezkorta elgoibartarrak (0:59:23) eta hamaikagarren helmugaratu zen Jon Larrañaga, lehenengo mendarorarra (1:01:31). Emakumezkoetan, berriz, Lola Oiartzabal gasteiztarra izan zen onena (1:08:39), eta haren atzetik Leire Olazabal debarra (1:11:31) eta Garazi Korra gasteiztarra sartu ziren (1:13:34).





**LANA****Eskaerak**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Malgutasun osoa. Titulu soziosanitarioa daukat.

631 020 169

Adinekoak zaintzeko prest nago.

679 912 841

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka. Asteburuetan ere bai.

641 756 213

Gizon arduratsua garbiketa lanak egiteko prest. Etxeak margotzeko edo peoi lanetarako ere bai.

632 708 954

Bikote langilea adinekoak zaintzeko prest. Esperientzia handia. Etxeko langile moduan ere bai.

634 196 236

Umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago, arratsaldez. Euskalduna naiz eta esperientzia daukat.

685 731 164

Astean zehar adinekoak zaintzeko prest nago. Baita gauak ospitalean igarotzeko ere. Esperientzia eta titulu soziosanitarioa daukat.

685 729 790

Adinekoak edo umeak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke.

632 684 096

Adinekoak edo umeak zainduz egingo nuke lan. Esperientzia handia daukat, erizaina naiz formazioz eta titulu soziosanitarioa daukat.

605 462 264

Etxe, taberna edo bulegoetan garbiketa lanak egiteko prest nago.

688 758 630

Adinekoak zainduz egingo nuke lan, esperientzia eta titulu soziosanitarioak ditut. Etxeko langile moduan, orduka edo ospitalean.

679 912 841

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, orduka, asteburuetan edo etxeko langile moduan.

613 346 916

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, asteazkenean, orduka.

633 596 106

**Eskaintza**

Lanerako gogoia duen ile-apaintzaile bila gabiltza.

626 524 949

Elgoibarko enpresa batek biltegian eta banaketan egun erdiz lan egiteko pertsona bat behar du, maiatzean hasi eta abuzturarte. Gidabaimena ezinbestekoa. Bidali CV: [hornikuntza@gmail.com](mailto:hornikuntza@gmail.com)

**GARAJEAK**

Garaje itxia alokatzen da, Jausoro plazan (udaletxetik gertu).

672 422 237

**BESTELAKOAK**

Belarritako bat aurkitu nuen San Rokeko Kalean, udaltzainen bulegoan utzi dut.

Ezkontza aliantza galdu dut, Basarteko eskailera mekanikoen inguruan. Demetrio Torres jartzen du.

943 741 275

**OSPAKIZUNAK**


1964an jaiotako enbarkaria, ekainaren 22an, Sigma jatetxean. 13:00etan elkartuko dira Foruen plazan argazkia ateratzeko. Ondoren, luntxa, eta 14:30ean bazkaria. 70 euro sartu behar dira ekainaren 8rako Laboral Kutxan. ES28 3035 0007 26 0071144881.


1959an jaiotako enbarkaria, ekainaren 8an. Maren tabernan batuko dira 13:00etan eta Sigman bazkalduko dute 14:30ean. 70 euro ordaindu behar dira maiatzaren 15erako. Laboral Kutxa: ES35 3035 0007 27 0071144803

 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzko Eskola Administrazioaren Erakunde Komunitarioa</p>  <p><b>ROSA Mª PINTADO</b></p> <p><i>Etxaldean Administrazioako-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p><b>660 969 679</b> <b>rosapf@telefonica.net</b></p>	<p><b>Gure komunitatean bada lokal bat higiezinaren gastu komunetatik salbuetsita dagoena, komunitatearen estatutuen arabera. Klausula mota hau baliozkoa den jakin nahi nuke.</b></p> <p>Ondasun higiezinari behar bezala eusteko gastu orokorrekin egindako ekarpenari dagokionez, libratze-klausulak onartzen dira; jabeakideen ordainketak finkatutako partaidetza-kuotaren edo bereziki ezarritakoaren arabera egiten dira. Lokal batzuen jabeek, baina, ez dute komunitatearen zerbitzu batzuek gozatzeko aukerarik. Jurisprudentzia-doktrina da: Lokaleko gastuei eragiten dieten salbuespen orokorrek, estatutu-klausuletan jasoak eta zerbitzua ez erabiltzean oinarrituak, gastu arruntak eta apartekoak bane hartzen dituzte. Klausula horrek ez ditu bane hartzen elementu komunak kontserbatzeko gastuak. Eraikinen elementu komunak kontserbaziotik kentzea kontraesana da eta komunitatearen esentziaren aurka joango litzateke, horrela aginduzko arauak urratuz. Legez kontrako litzateke eraikinen kontserbazio-gastu arruntak edo apartekoak ordaintzetik sahistea lokal jabe bat, lokal hori komunitatearen parte bada.</p> <p><b>Ondorioa. Klausula horrek adierazten duena da lokala salbuetsita dagoela erabiltzen ez dituen zerbitzuak ordaintzetik: eskailerako argia, atariaren barneko gastuak, igogailua..., baina ez du salbuesten eraikina kontserbatzeko gastuetan edo erantzukizun zibileren ondoriozkoetan parte hartzea. Hori gertatzen da fatxadako gastuekin, estalkiekin, estolderiarekin, aseguruarekin eta lokal horrek nahitaez ordaindu behar dituen antzeko beste gastu batzuekin.</b></p> <p><b>AHOLKULARI KOLABORATZAILEA</b> San Bartolome, 2</p>
--	--





Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  688 655 658 bidalita.




Zorionak, **Intza**, martxoaren 29an 7 urte handi bete zenituelako. Segi beti bezain alai, maittia. Patxo handi bat familia osoaren partez.



Bazterrak loran, kukua kantuan eta Benidorm etxeko atarian. Patata tortilla eta garagardo bana baino ez ditugu falta bihar zure eguna ospatzeko, **Arrate!** Zorionak!



Zorionak, **amama!** Bihar 83 urte! Merezi bezala ospatu behar duzu zure eguna, gaur gurekin, bihar aitxixarekin eta domekan lagunekin! Asko maite zaitugu! Etxekoak.



Zorionak, **Danel**, zapatuan 11 urte bete zenituelako. Muxu handi bat etxekoan, eta bereziki, Peioren partez.




Zorionak, **Libe**, martitzenean 8 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat etxekoan eta lagunaren partez. Segi orain arte bezain jator eta artista izaten.



Zorionak, **Jon**, asteartean 6 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat etxekoan partez. Jarraitu orain arte bezain alai.




Zorionak, **Lia**, 3 urtetxo bete dituzulako. Segi horrelako sorgintxo izaten. Familiako denon partez, muxu asko.



Zorionak, **Pello!** Iritsi da zazpi-garrena ere! Ondo ospatu eta muxu handi bat.



Zorionak, **Enara** eta **Mara**, apirillean 4 eta 7 urte egingo dituzuelako. Muxu handi bat etxekoan partez.



Zorionak, **Oier**, txapeldun. Gaur 9 urte handi! Jarraitu orain arte bezain alai eta jator. Ondo baino hobeto ospatu! Infinito eta buelta maite zaitugu. Muxu handi bat etxeko guztion partez.



Zorionak, **Araia** eta **Eliaia!** Egun mundiala pasatu genuen eta pasatuko dugu. Patxo handi bana.

**EXPRESS ESKAINTZAK!**

**BOSCH WAJ20062ES ARROPA GARBIGAILUA**



**A T G B**

**479 €**

- 15/30min programa azkarra
- Ekosilence motorra
- Programa bereziki
- 7 kg karga
- 1000 b/min
- Funtzioa: etenaldia + karga

**MILARBIRE**

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.



**Ba al duzu konpondu beharreko arroparik? Ekarri, eta berri-berri utziko dizugu, zeure neurria. Jantzigintzarako makina bereziak ditugu, edozein ehun konpondu ahal izateko:**

**PUNTUZKO EHUNAK, TXIRRINDULARITZAKO MAILOAK ETA KULOTEAK, LARRUA, ZETA ETA ABAR LUZE BAT...**



**Komertzioekin lan egiten dugu (etxeko ehungintzekin eta jantziekin) TARIFA BEREZIAKI!**

**San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)**

## 12 BARIKUA

**18:00** Hilekoaren zikloa ezagutzeko tailerra, Mendaron.

**18:30** Luziano pintorearen erakusketa: 'Materia eta kolorea'. Hilaren 27ra arte egongo da ikusgai, Kultur Etxeko erakusketa gelan.

## 13 ZAPATUA

**10:00** Landa koadernoan tailerra. Gure natura ezagutzeko taldeak eta Egur arte tailerrak antolatuta.

## 14 DOMEKA

**10:30** Jose Gurrutxaga krosa. Elgoibar Ikastolak antolatuta, herriko kaleetan.

## 15 ASTELEHENA

**19:00** Aitziber Garmendiarekin solasean. Mendaroko udaletxeko udalbatza-aretoan. In Leike kultur elkarteak eta Mendaroko Udalak antolatuta.

## 16 MARTITZENA

**17:30** Hitzaldia: 'Nerabeak eta osasun mentala'. Nerabeen gurasoentzako. Elgoibarko Gaztelekuan. Estibaliz Ansotegik emango du.

## 17 EGUAZTENA

**18:00** Ikastaroa: Lehen sorospinak. Gaztelaniaz izango da, Elgoibarko Jubilatuen Biltokian.

**18:30** Idazlan lehiaketako sari banaketa. Aita Agirre kulturguneko areto nagusian.

## 18 EGUENA

**18:00** Ikastaroa: Lehen sorospinak. Gaztelaniaz izango da, Elgoibarko Jubilatuen Biltokian.

**18:00** 'Surflaria' liburuaren aurkezpena eta komikigintzari buruzko mahai-ingurua. Lilan, euskaraz.

## 19 BARIKUA

**19:00** 'Sólo hasta mañana'. Erre Produzioak taldearen eskutik, Herriko Antzokian.



**ATE IREKIAK**

**APIRILAK 16**

Asteartea, 18:00

*Eman izena!*



**Zinea**

'Radical'  
(Ongarri zinekluba)  
17, eguaztena: 21:00

**OHARRA**

Herriko Antzokiko  
langileen greba dela eta,  
asteburu honetan  
ez da zine emanaldirik egongo.

**2024ko botika ordutegiak:**

09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00

Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

**APIRILA**

12 BARIKUA	Arriola
13 ZAPATUA	■ Fernandez / ■ Barrenetxea
14 DOMEKA	■ Fernandez
15 ASTELEHENA	Yudego
16 MARTITZENA	■ Oruesagasti
17 EGUAZTENA	Barrenetxea
18 EGUENA	■ Ibañez
19 BARIKUA	Garitaonandia

**2024 urte gutzian, gaez:**

Lekunberri Alberdi, Mikel Isasi, 31 (Eibar)  
943 204 230

■ Fernandez: Herriko Enparantza, 4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142	■ Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638	■ Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384
--	--	--

**Eta, Debabarrenean zer?****Lauzpa5 Stand Up umorezko bakarrizketa saioak, Deban.**

Maria Blanco, Mikel Irazusta, Iker Plazaola, Julen Portillo eta Maialen Sorzabal umoregile gazteen proiektua da Lauzpa5 Stand Up. Debako Kultur Elkartearen eskutik, Deban arituko dira gaur, 20:00etan, Kultur Elkartearen. Sarrerak Internet bidez eros daitezke, bost euroan, [labur.eus/debalauzpa5](http://labur.eus/debalauzpa5) estekan.

## II. URTEURRENA

**Rosario Arrieta Etxaniz**

2022ko apirilaren 10ean hil zen, 93 urte zituela.

**Beti gure bihotzetan.**

## V. URTEURRENA

**Jose Liberal Dominguez**

2019ko apirilaren 5ean hil zen, 79 urte zituela.

**Muxu bat zerura, sekulako hutsunea utzi zigun baina  
zutik jarraitzeko indarra bidaltzen digun pertsona horrengatik.  
Asko maite zaitugu, Pepe.**





Naomi  
Puwainchir  
Iparragirre

6 urte, Elgoibar



*"Mendia eta itsasoa"*



Anitz  
Ezenarro  
Narbaiza

9 urte, Mendaro



*"Zipristinak"*

# JEROGIFIKOAK



*Nola goa gure aitona?*

-----



*Nor da neska hori?*

-----



*Non busti da?*

-----

# ASMAKIZUNAK



Ea asmatzen dituzun asmakizun hauek!



*Niri emandako ostikoei esker, egiten dituzte horiek jokaldi ederrak,*

-----

*Esaidazu igarle, zer dago beti uda hasieran eta negu bukaeran?*

-----

*Eskolako gauza bat da eta erabiltzen baduzu, gauzak desagertzen dira!*

-----



# MATEMATIKAK

Peru eta Miren eskolako lanak egiten ari dira. Jarri dagokion eragiketa ikurra (+ / -) hutsune bakoitzean:

$$30 \dots\dots 5 \dots\dots 1 = 24$$

$$69 \dots\dots 3 \dots\dots 1 = 73$$

$$10 \dots\dots 2 \dots\dots 2 = 10$$

$$7 \dots\dots 5 \dots\dots 4 = 6$$

$$2 \dots\dots 3 \dots\dots 12 = 17$$

$$86 \dots\dots 10 \dots\dots 2 = 78$$

$$50 \dots\dots 10 \dots\dots 5 = 55$$

$$33 \dots\dots 11 \dots\dots 4 = 18$$

Erantzunak: \_\_\_\_\_

Jerogifikoak:

Asmakizunak:

BIZARDUNA (B-izarduna)  
ANE (An-e)  
ERREKAN (Erre-kan)

FUTBOLEKO BALOIA  
U (LETRA)  
BORRAGOMA


30 - 5 - 1 = 24  
50 + 10 - 5 = 55  
10 + 2 - 2 = 10  
2 + 3 + 12 = 17  
69 - 3 - 1 = 65  
7 - 5 + 4 = 6  
86 - 10 + 2 = 78  
33 - 11 - 4 = 18



Aste honetako erretratu zaharra Maria Luisa Galdosek bidali digu erredakziora. 1959an aterata dago, Maalako zubian. Emakumeak dotore ageri dira argazkian, eraikin zaharrak atzean dituztela. Gogora ditzagun zeintzuk diren argazkiko protagonistak:

Goiko neska Maria Luisa Galdos da, eta erdiko ilaran, ezkerretik eskubira daudenak, honako hauek dira: Rosa Mari, Mertxe Iribarren, Asun, Puri Juaristi, Rosa Mari, Kontxi Barrutia, ezezaguna.

Beheko ilaran: Ana Mari Intsausti, Belen Juaristi (†), Maria Luisa Arkarazo (†), Arantxa Arrieta, Kontxi Riaño, Maria Jesus eta Arantxa Bikondoa.



### *Maite Elkoro-Iribe San Martin*

2024ko martxoaren 31n hil zen, 70 urte zituela.

***Zenbat une itsasertzean, milaka izar gauean  
zure begien distira, betirako gure artean.***

Etxekoak



IV. URTEURRENA

## *Oier Etxaniz Beneitez*

2020ko apirilaren 17an hil zen, 31 urte zituela.

***Zaila da onartzea  
inoiz ez zaitugula berriro ikusiko.  
Hala ere, Oier, bizi garen bitartean,  
ez zaitugu inoiz ahaztuko.***

Etxekoak



V. URTEURRENA

## *Fernando Gonzalez Mediavilla*

2019ko apirilaren 6an hil zen, 55 urte zituela. Haren oroimenez V. urteurreneko meza izango da, domekan, apirilaren 14an, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi, alde zurretik eskerrak.

***Anaia eta seme maitea.  
Bost urte bete dira joan zinenetik.  
Zure argiak gure bizitzak argitzen jarraitzen du,  
eta zu beti egongo zara gure bihotzetan.***

Zure amak eta arrebak



V. URTEURRENA

## *Dora Garrido Navarro*

2019ko apirilaren 9an hil zen, 78 urte zituela.

***Ez da inoiz hiltzen ahazten ez bada  
eta guk ez zaitugu ahaztuko.  
Beti gure bihotzetan,  
asko maite zaitugu.***

Etxekoak



# GREEN MI OEN GIDA



**PINTURA**

**BIOK**  
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

**943 741 552**  
**606 431 120**

biok@biokdekorazioa.com

**IZURRIEN KONTRAKO TRATAMENDUAK**

PLAGANATURA

Cuidando lo Salud Ambiental

**618 198 760**

ivan@plaganatura.eus  
www.plaganatura.eus

**AROZTEGIA**

**BIENA, S.L.**  
AROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16  
tel/fax. 943 743 116  
www.biena.eus  
info@biena.eus

**ITURGINTZA**

**PAGOAGA S.A.**

BULEGOA ETA ERAKUSKETA

Pedro Migel Uruzuno, 8  
**943 740 512**  
fax: 943 743 565  
blendu@pagoagasa.com  
www.pagoagasa.com

**BILTEGIA**  
San Antolin, 13 - ELGOIBAR  
taller@pagoagasa.com  
**943 740 279**



**AROZTEGIA**

**iraolagoitia**

aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutuz-gain industrialdea, 9  
20850 Mendara

**943 756 112**  
**636 497 485**

www.iraolagoitia.com

**ITURGINTZA**

**SANTANA**

Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea, 17, behea  
Elgoibar

**943 740 530 / 605 714 905**  
santanaiturgintza@gmail.com



**AROZTEGIA**

**IMAR**  
AROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behea  
**943 531 471**  
**609 054 978**  
carpinteriaimar@hotmail.com  
@carpinteria\_imar

**Gidan agertzearen onurak!**

**943 743 704**  
**688 769 657**

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Alta Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk  
20870 ELGOIBAR

**23,82€**  
hilero

**12**  
aldiz urtean

**4.700**  
ale astero

23,82 Eren truke, hilero, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu BARREN astekarian.

BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleiho ikusiena.

4.700 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron DOAN.

Eman bultzada eskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.